

SEGURA / Liburutegiko erabiltzaileen artean gehiago dira erdaraz irakurtzen dutenak

ANDONI ETXEBERRIA/ SEGURA. DV. Urte hasieran sartu zen Udal biblioteka Euskadiko Liburutegien Sistema Nazionalen eta, ordutik, datuak ere eguneratuta eta zehaztuta daude bazkide, erabiltzaile eta irakurtzen diren liburuen gainean. Celes Goitia liburutegiko arduradunak urte hasieratik bilduta dituen datuen arabera, guztira 334 bazkide ditu egun bibliotekak. Horietatik 214 helduak dira, 129 emakume eta 85 gizonezko, eta 120 haurrak, 61 neska eta 59 mutil.



Emakumeak eta erdaraz irakurtzen dute nagusiki liburutegian.
[ETXEBERRIA]

Irakurtzen diren liburuei dagokionez, erdarazkoak nagusitzen dira, eta horien artean Angeles y demonios, Un milagro en equilibrio, El Código da Vinci eta La hermandad de la Sabana Santa izan dira orain arte irakurrienak

Euskaraz irakurtzen diren liburuen kopurua askoz ere murriztagoa da eta, goian aipatutako gaztelerazko narrazioak 7 eta 8 aldiz hartu badituzte erabiltzaileek aurten orain arte, lau euskal liburu besterik ez dira eskatu bil alditan, hain zuzen: Kutsidazu bidea, Isabel, Bizia lo, Barrikadak: Vigo-Hendaia espresa eta Marasmus femininus: Joanaren gutun zaharrak.

Haurren datuei erreparatuta, euskal eta erdaldun irakurleen kopurua parekatuagoa da, eta euskaraz irakurrienak Txomin ospitalean eta Ireki baserria dira. Erdaraz, berriz, El maravilloso mundo de los animales.

Hilero egiten diren liburuen maileguei dagokionez, urrian hartu dira liburu gehien, 122 hain zuzen. Maiatzean 114 izan ziren, ekainean 93 eta apirilean 90.